

EUSKADIKO ORKESTRA

22—23

Antsietatea *Ansiedad*

→ Adams · Walker · Rachmaninoff

MARTXOA 14 MARZO
19:30

PAMPLONA / IRUÑA
Baluarte

euskadikoorkestra.eus

EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular
ROBERT TREVIÑO

Musikariak / Las/os músicas/os

KONTZERTINO GONBIDATUA CONCERTINO INVITADO

Johann Soustrot

I BIOLINAK / VIOLINES I

Waldemar Machmar (1)
Xabier de Felipe (3)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
Laura Balboa
Irene Echeveste
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Oscar López
Maite Menéndez
Larraitx Oartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (3)
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Luxi Lavielle (4)
Ricardo Ruiz
Igor Torre

BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Monika Mazur (3)
Maite Abasolo
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Sergio Montero
Yann Seyrac

BIOLONTXELOAK VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (3)
Natalia Díaz
Ángela Escauriaza (4)
Javier Escrihuela (4)
Jacek Grabe-Zaremba
Jon Larraz
Beatriz Linares
Pascale Michaud
Ian Swedlund

KONTRABAXUAK CONTRABAJOS

Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Guangyao Zhao (3)
Victor Bogdanov
Marc Sirera
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent

FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

OBOEAK / OBOES

Silvia Esain (2) (4)
Hervé Michaud (2)
Rafael Alonso
Pascal Laffont

KLARINETEAK CLARINETES

Luis Cámara (2)
Juan Navarro (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

FAGOTAK / FAGOTES

Marco Caratto (2)
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

TRONPAK / TROMPAS

Marcos Cruz (2)
Cristian Palau (2)
Jean-Luc Casteret
Adrián García Carballo
Xabier Sarasa
Salvador Tudela

TRONPETAK / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)
Bernabé García (2)
Jesús Castillo
Miguel Echebare

TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Daniel Ruibal

TUBA

Oscar Abella (2)

TINBALAK ETA PERKUSIOA TIMBALES Y PERCUSIÓN

Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Igor Arostegi
Xabier Peña

HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Lehen tutta / Primer tutti
- (4) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal

14 MARTXOA
MARZO



RODERICK COX
Zuzendaria * Director

Egitaraua ^ Programa

I

GEORGE WALKER (1922-2018)

Lyric for Strings [6']*

Argitaletxea / edita: MMB Music Inc.

JOHN ADAMS (1947)

Doctor Atomic Symphony [25']*

Argitaletxea / edita: Boosey & Hawkes Music Publishers Ltd

- I. The Laboratory
- II. Panic
- III. Trinity

II

SERGEI RACHMANINOFF (1873-1943)

Danzas sinfónicas, Op.45 [35']

Argitaletxea / edita: Boosey & Hawkes, Inc.

- I. Non allegro - Lento - Tempo I
- II. Andante con moto (Tempo di valse)
- III. Lento assai - Allegro vivace

* Lehen aldiz interpretaturiko obra /
Obra interpretada por primera vez

Robert Treviñok, bere jaioeterriko musikaren defendatzaile handia izanik, euskal entzuleei erakutsi nahi izan dizkie Estatu Batuetako erreperatorioko bitxietako batzuk. Hala, Euskadiko Orkestraren Denboraldira **Roderick Cox** gonbidatu du, 2018an Georg Solti Orkestra Zuzendaritza Saria irabazi zuena eta hiru denboraldiz Minnesotako Orkestraren zuzendari elkartua izan dena. Egun Alemanian bizi den Cox etorkizun oparoa duten Estatu Batuetako orkestra-zuzendarietako bat da, eta munduko orkestra garrantzitsuenetako batzuekin debutatu du dagoeneko. Konexio berezia sentitzen duenez herrikideen musikarekin, George Walkerrera edo John Adamsena kasu, euskal publikoaren aurrean aurkezteko hautatu ditu.

George Walker 1922an jaio zen, eta gaztetan mugak hautsi zituen: lehen musikari afro-amerikarra izan zen Curtis Institute of Music zentroan graduatzen, New Yorkeko udaletxean jotzen eta National Concert Artists errepresentazio-agentziako kide izaten (XX. mendeko erdialdean, Estatu Batuetako nagusietako bat). Bere ibilbidearen zati handi bat pianoarekin egin zuen arren, Walkerrek konposizioa ikasi zuen Rosario Scalerorekin –Samuel Barberren irakaslea– eta Nadia Boulangerrekin, eta laurogeita hamar obra baino gehiago idatzi zituen 2018an hil zen arte. Horietako bat Ipar Amerikako musikaren klasiko bilakatu da: **Lyric for Strings**. Zazpi minutuko konposizio labur bat da, *1. harirako kuartettoa* (1946) obraren bigarren mugimendu gisa sortu zuena, baina, 1990ean hari-orkestrarako moldatu ondoren, obra autonomo bilakatu zen. Zendu berri zen amonaren memoriari eskainitako orri bat da, jatorrian *Arrangura* izenburua zuen, eta ageriko emozioa datorkio Walkerrek nostalgian, zintzotasunaren eta goxotasunaren artean lortzen duen neurrizko orekatik.

John Adams 1947an jaio zen Ingalaterra Berrian, eta Walkerren osteko belaunaldiko konpositore estatubatuar garrantzitsuenetako bat da. Minimalismoarekin identifikatu daitekeen arren, horren aitzindari izan ziren La Monte Young, Steve Reich eta Philip Glass baino hamar urte gazteagoa denez, Adamsen estiloa bestelakoa da, irekiagoa eta heterogeneoagoa. Dena den, berak ere obrak konposatzeko abiapuntutzat gehienbat errepikapenezko prozesuak jartzen ditu martxan –nahiz eta ezaugarri hori ez den hain agerikoa azken hamarkadetako bere ekoizpenetan–. Adamsek oinarri minimalista hori nahasten du Mendebaldeko musikaren konpositore handien influentziekin eta kultura popularraren ikonoekin, argitasun handiz bateratu baititu *a priori* antagonikotzat jotzen diren konposizio-planteamenduekin. *Chamber Symphony* lanean (1992), adibidez, bat egiten dute oso bestelakoak diren erreferenteak, Arnold Schoenberg eta Estatu Batuetako film labur zoroak kasu –zehazki, Bidelariarenak–; eta *Harmonielehre* lanean (1985), zeinak izenburua zor baitio Schoenbergren harmonia-itun bati –Adamsen irakasle Leon Kirchner-en maisu izan zen Schoenberg–, Mahler, Wagner, Debussy edota Sibelius egileen ahotsak entzun daitezke.

Azken horren arrastoa jarrai daiteke gaur gauean entzungo dugun **Doctor Atomic Sinfonia**n, 25 minutuko arku bakarrean egituratu baita, Sibeliusen *7. Sinfonia* bezala. Materiala *Doctor Atomic* operatik dator. San Frantziskoko operan estreinatu zuten 2005ean, eta XX. mendeko historiako ikerkuntzarik zirraragarrienetako bat azaltzen du, baita emaitzarik gaitzesgarrienetako batzuk dituen ere: bomba atomikoaren asmakuntza. Formatu dokumental berritzaile bati jarraitzen dion opera hori kokatuta dago 1945eko uztailaren 16an bonbak lehen aldiz eztanda egin aurreko egunetan eta orduetan, eta sakontzen du Manhattan proiektuaren arduradun nagusi Robert Oppenheimer-ek aurre egin behar izan zien kontraesanetan. «Bomba atomikoaren aita» kultura eta sentsibilitate handiko gizona izan zen, arteen eta musikaren zalea, ikerkuntza horrekin aurrera egin zuena, nahiz eta bazekien

amaitutakoan «mundua ez zela aurrekoa izango», eta, azkenean, bomba Japonian jaurtitzeko Truman presidentearen erabakiaren aurka egin zuena. John Adamsen ustez, atomoaren manipulazioa, trinkoki kontzentratutako energia-iturri hori askatzea, aurretik helezina zena, gure garaiko alegia mitologiko handia izan zen, eta Oppenheimer, mito garaikide horren heroi.

Sinfoniaren sarrera, *Laborategia*, metalen fanfarre ikaragarria da, erritmo irregularretan hots ozenetan entzuten diren tinbal batekin, omenaldi bat Edgard Vareseren soinu-munduari, nuklearren osteko suntsitutako paisaia gogorarazten duena. *Izua* dator ondoren. Hari amorratuekin hasten da, eta Xostakovitxen gerrako sinfoniak gogorarazten ditu ezinbestean. Operan, zati hori bat dator bomba nuklearra probatu zuten Mexiko Berriko basamortuari buruzko eszenarekin, leherketaren aurreko orduetan ekaitz elektriko bortitz batek astindu baitzuen. Gero, operako pertsonaiei lotutako gaiak agertzen hasten dira, esperimentuaren aurreko jarduera bizian zebiltzanak: adibidez, tronboi solo grotesko batek Leslie Groves armadako jenerala pertsonifikatzen du, bai zientzialariei, bai mendeko militarrei errieta egiten. Tewa indiarren erritu-dantza bat ere entzuten da, Mexiko Berriko inguru horretan bizi baitziren.

Azken mugimenduko subjektu nagusia baritono batentzako aria bat da –hemen, tronpeta batek intonatzen du–, operan John Donne poeta metafisikoaren soneto bat errezitatzeko duena: *Batter my heart, three person'd God* (Kolpa iezadazu bihotza, Jainko hirupertsonala). May Grayren arabera, suntsipen apokaliptikoaren gaineko poema bat da, maitasunez sutuki mozorrotua, zeinean Oppenheimerrek atera baitzuen klabean idatzita lehen entsegu atomikoaren izenburua: *Hirutasuna*. Hala ere, nahiz eta *Doctor Atomic* sinfoniak jatorrizko operaren zatiak berreskuratzen dituen, ez du gertakariaren kontakizun programatikoa proposatzen. Gakoa da gai horien forma zatitua eta premia, gertakariko protagonistik bertatik bertara ezagutu zuten egoera psikologikoa eragiten baitute: kezka berehala gertatzekoa zen irismen eta neurri ezezagunetako zorigaitz bategatik.

Adamsen obran kontatzen diren gertakariak izan baino urte gutxi batzuk lehenago konposatu zituen **Rakhmaninovek *Dantza sinfonikoak***: 1940ko udan, Locust Point-en (New Jersey) itsasoaren ondoan zeukan *dacha* batean. Giro lasaian konposatu zuen arren, konpositorearen gogo-aldarteak bestelakoa zen. Izan ere, 67 urte zituen, baina dozena erdi lan nabarmen baino ez zuen lortu sortzea 1918an Estatu Batuetara emigratu zuenetik, Errusiar Iraultzatik ihesi. Beti izan zuen jaioterria itzultzeko nahia, baina bere bizitzaren amaiera aldera (1943an zendu zen), bazekien amets hori ez zela inoiz beteko, eta horrek atsekabea eragiten zion. Horri dela eta, *Dantza sinfonikoak* obrari iraganeko bizitzarekiko nostalgia dario: «Erro musikalak, tradizioak eta testuingurua suntsitu dioten erbesteratuaren kontsolamendu bakarra oroitzapenen hautsi gabeko eta hautsi ezineko isiltasuna da», idatzi zuen konpositoreak.

Dantza sinfonikoak Rakhmaninoven oroitzapenen bilduma dira nolabait, bere edo besteen musikaren aipamenen bidezkoa, oro har, ikuspegi atsegin batetik aurkeztuta. Hiru mugimendutan banatuta daude: *Eguerdia*, *Ilunabarra* eta *Gauerdia*. Besteak beste, bere *Lehen Sinfoniako* gai nagusi mehatxatzailea jasotzen dute –estreinatu zenean izugarrizko porrota izan zen arren, hemen tonalitate handiagoko melodia distiratsu moduan ageri da–. Obran askotariko balsak ere badaude, *a capella* abesbatzarako *Bezperak* lanaren zatiak edo *Dies irae* sekuentzia (hildakoen mezaren parte dena). Rakhmaninov obsesionatu eta bere lan batean baino gehiagotan erabili zuen melodia da, eta *Dantza sinfonikoak* bere azken sorkarian leku garrantzitsu bat du.

Robert Treviño es un gran defensor de la música de su país natal, Estados Unidos, y ha querido mostrar al público vasco algunas joyas del repertorio norteamericano invitando a la Temporada de Euskadiko Orkestra a **Roderick Cox**, ganador en 2018 del Premio de Dirección de Orquesta Georg Solti y director asociado de la Orquesta de Minnesota durante tres temporadas. Afincado actualmente en Alemania, Cox es una de las grandes promesas de la dirección de orquesta estadounidense, ha hecho ya su debut con algunas de las formaciones más importantes del mundo, y siente una conexión especial con la música de compatriotas como George Walker o John Adams, a los que ha escogido para hacer su presentación ante el público vasco.

Nacido en 1922, **George Walker** fue un músico que rompió barreras en su juventud: fue el primer músico afroamericano en graduarse en el Curtis Institute of Music, en actuar en el Ayuntamiento de Nueva York o en formar parte de National Concert Artists, una de las mayores agencias de representación de Estados Unidos a mediados del siglo XX. Aunque gran parte de su carrera se centró en el piano, Walker estudió composición con Rosario Scalero —maestra de Samuel Barber— y con Nadia Boulanger, y escribió más de noventa obras hasta su muerte en 2018. Pero es una de ellas la que se ha convertido en todo un clásico de la música norteamericana: **Lyric for Strings**, una breve composición de siete minutos que se originó como el segundo movimiento de su *Cuarteto para cuerdas n.º1* (1946) y que despegó como obra autónoma tras su arreglo para orquesta de cuerdas en 1990. Titulado originalmente *Lamento*, es una página dedicada a la memoria de su abuela, que había fallecido recientemente, y su emoción a flor de piel emana del sobrio equilibrio que logra Walker entre nostalgia, nobleza y dulzura.

Nacido en 1947 en Nueva Inglaterra, **John Adams** es uno de los compositores estadounidenses más importantes de la generación posterior a la de Walker. Es, por otra parte, 10 años más joven que La Monte Young, Steve Reich y Philip Glass, pioneros del minimalismo, y por eso su adscripción a este estilo es diferente a la de estos, más abierta y heterogénea, aunque el punto de partida al componer sus obras siga siendo esencialmente el de poner en marcha procesos repetitivos —un acercamiento algo menos evidente, por otra parte, en su producción de las últimas décadas—. En Adams esa base minimalista se imbrica con influencias de los grandes compositores de la música occidental y con iconos de la cultura popular, que integra con gran ingenio en planteamientos compositivos que, *a priori*, se dirían antagónicos. En su *Chamber Symphony* (1992), por ejemplo, conviven referentes como Arnold Schoenberg y los alocados cortos de animación americanos —concretamente, los del Correcaminos—, y en *Harmonielehre* (1985), que toma su título de un tratado de armonía de Schoenberg —quien fue maestro del profesor de Adams, Leon Kirchner—, resuenan las voces de autores como Mahler, Wagner, Debussy o Sibelius.

Se puede seguir el rastro de este último en la obra que escucharemos esta noche, la **Sinfonía Doctor Atomic**, estructurada en un único arco de 25 minutos tal y como sucede en la *Sinfonía n.º7* de Sibelius. Su material procede de la ópera *Doctor Atomic*, estrenada en 2005 en la Ópera de San Francisco y que se detiene en una de las investigaciones más fascinantes, y con resultados más ominosos, de la historia del siglo XX: la invención de la bomba atómica. La ópera, que sigue un novedoso formato documental, se centra en los días y horas previas a la primera detonación de la bomba, el 16 de julio de 1945, y profundiza en las contradicciones a las que se enfrentó el principal responsable del Proyecto Manhattan, Robert Oppenheimer. El “padre de la bomba atómica” fue un hombre de gran cultura y sensibilidad, amante de las artes y de la música, que siguió adelante con la investigación a pesar de saber que tras completarla “el mundo ya no sería lo mismo”, y que terminó rebelándose contra la decisión del presidente Truman de lanzar la bomba sobre Japón. Para John Adams, “la manipulación del átomo, el desencadenamiento de esa fuente antes inaccesible de energía densamente concentrada, fue la gran fábula mitológica de nuestro tiempo”, y Oppenheimer, el héroe protagonista de ese mito contemporáneo.

La introducción de la sinfonía, titulada *El laboratorio*, es una tremebunda fanfarria de metales con un timbal que atruena en ritmos irregulares, un homenaje al mundo sonoro de Edgard Varèse que evoca un paisaje posnuclear devastado. Le sigue *Pánico*, que comienza con unas cuerdas frenéticas que recuerdan irremediabilmente a las sinfonías de guerra de Shostakovich, un fragmento que en la ópera se corresponde con una escena que evoca la feroz tormenta eléctrica que azotó el desierto de Nuevo México, donde se realizó la primera prueba nuclear, en las horas previas a la detonación. Después, van haciendo su aparición los temas asociados a los diferentes personajes de la ópera, inmersos en la intensa actividad previa al experimento; por ejemplo, un grotesco solo de trombón que personifica al general del ejército Leslie Groves, regañando tanto a los científicos como a sus subordinados militares. Escuchamos asimismo una danza ritual de los indios Tewa, que habitaban esa zona de Nuevo México.

El último movimiento tiene como sujeto central un aria para barítono –aquí entonada por la trompeta– que en la ópera recita un soneto del poeta metafísico John Donne, *Batter my heart, three person'd God* (Golpea mi corazón, Dios tripersonal). Se trata, según May Gray, de “un poema de destrucción apocalíptica densamente disfrazada de amor” del que Oppenheimer extrajo el nombre en clave para el primer ensayo atómico: *Trinidad*. Pero aunque la *Sinfonía Doctor Atomic* recupere fragmentos de la ópera original, es necesario señalar que no propone una narración programática de los hechos. La clave está en la forma fragmentada y urgente que adquieren estos temas, generando así un estado psicológico que los protagonistas del episodio conocieron de primera mano: la ansiedad por una calamidad inminente cuyo alcance y proporciones se desconocen.

Rachmaninoff compuso las **Danzas sinfónicas** poco años antes de los acontecimientos narrados en la obra de Adams: durante el verano de 1940, en su *dacha* junto al mar en Locust Point (Nueva Jersey). Pero, aunque el ambiente que rodeó a la composición fuera relajado, no lo era el ánimo del compositor que, a sus 67 años, apenas había compuesto media docena de obras relevantes desde que emigró a Estados Unidos en 1918 huyendo de la Revolución Rusa. Siempre quiso regresar a su país natal, pero ya en la recta final de su vida (fallecería en 1943) era muy consciente de que tal sueño no llegaría a realizarse, y eso le pesaba. Las *Danzas sinfónicas* transpiran, por ese motivo, una profunda nostalgia por una vida pasada: “Al exiliado cuyas raíces musicales, tradiciones y trasfondo han sido aniquilados, no le queda más consuelo que el silencio inquebrantado e inquebrantable de sus recuerdos”, escribió el compositor.

Las *Danzas sinfónicas* son, en cierto modo, un recopilatorio de las memorias de Rachmaninoff, a través de citas de música propia o ajena que generalmente se presentan bajo una perspectiva amable. Repartidos en tres movimientos titulados *Mediodía*, *Anochecer* y *Medianoche*, aparecen, por ejemplo, el amenazante tema principal de su *Primera Sinfonía*, que fue un estrepitoso fracaso en su estreno, pero aquí transformado en una brillante melodía en tonalidad mayor. En el transcurso de la obra van surgiendo también diversos vales, fragmentos procedentes de sus *Vísperas* para coro a *cappella*, o la secuencia del *Dies irae* (parte de la misa de difuntos), una melodía con la que Rachmaninoff estuvo obsesionado y que incluyó en varias de sus obras, pero que encuentra un lugar central en las *Danzas sinfónicas*, su última creación.

Mikel Chamizo

Hurrengo Abonu kontzertua · Próximo concierto de Abono

SARRERAK / ENTRADAS

Arimatik
Desde el alma

→ Elgar · Veprik · Beethoven

APIRILA
24
ABRIL
19:30

10€ < 38€

- euskadikeorkestra.eus
- baluarte.com
- Leihatila / Taquilla

AZKEN
ORDU
GAZTEA!
10€

EUSKADIKO ORKESTRA

22—23

ROBERT TREVIÑO

Zuzendari titularra ° Director titular

Tragedia

Shostakovich · Falla

Mamuak *Fantasmas*

Tchaikovsky · Carpenter

Carmina Burana

Orff · Strauss

Handiena *La más grande*

Bruckner · Gerenabarrena

Gure patua *Nuestro destino*

Beethoven · Wagner ·
Shostakovich

Esnaera *Despertar*

Mahler · Lazkano

Antsietatea *Ansiedad*

Adams · Walker ·
Rachmaninoff

Arimatik *Desde el alma*

Elgar · Veprík · Beethoven

Pasioa *Pasión*

Prokofiev · Dzenitis ·
Korngold

Gainditzea *Superación*

Shostakovich · Chopin



SARRERAK / ENTRADAS

A partir de **10€** -tik gora

Tarifa bereziak: kontsultatu deskontuak / Tarifas especiales: consultar descuentos
BILBO. Euskalduna - DONOSTIA. Kursaal - GASTEIZ. Principal - IRUÑA. Baluarte
19:30